

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko abenduaren 11tik 15erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZ-REN BILERA

Estimaciones BCE:

	Hazkundera		Inflazioa	
	Aurrekoa	Gaur egun	Aurrekoa	Gaur egun
2017	% 2,2	% 2,4	% 1,5	% 1,5
2018	% 1,8	% 2,3	% 1,2	% 1,4
2019	% 1,7	% 1,9	% 1,5	% 1,5

Datuaren analisia


EBZk ez zuen aldaketarik egin bere diru-politikan, eta gorantz berrikusi zituen 2017, 2018 eta 2019rako hazkunde aurreikuspenak. Inflazioaren aurreikuspenak ere gorantz berrikusi ziren; bi hamarren igo ziren 2018rako, petrolioaren prezioaren igoeragatik, baina bere horretan mantendu ziren 2019rako.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen BILERA



Datuaren analisia


Erreserba Federalak bilera egin zuen aste horretan. Erakundeak 25 op igo zituen interes-tasak, aurreikusita zegoen moduan, eta etxeko ekonomiaren balorazio positiboa egin zuen. Hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusi ziren, 2018rako batez ere (% 2,5 vs % 2,1) eta, neurri txikiagoan, 2019 (% 2,1 vs % 2,0) eta 2020rako ere (% 2,0 vs % 1,8). Langabezia-tasaren aurreikuspenek, aldiz, bi hamarren egin zuten behera 2017-2020 eperako, % 3,9raino. Tasen aurreikuspenei dagokienez, 25 op-ko hiru igoera aurreikusi ziren 2018rako, bi igoera 2019rako eta igoera gehigarri bat 2020rako.

Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

KPIa % 2,2koa izan zen azaroan, urrian baino bi hamarren gehiago. Beraz, datua bat etorri zen analisten aurreikuspenekin. Hala ere, azpiko KPIaren datua espero zena baino pixka bat apalagoa izan zen, urte arteko % 1,7ra igo baitzen, aurreikusitako %1,8aren aldean. Hileko datuei begiratuta, KPI orokorrak % 0,4 egin zuen gora eta azpikoa % 0,1 hazi zen, esperotako % 0,2aren aldean. Igoera horren arrazoi nagusia erregaien prezioen gorakada izan zen. Elikagaien prezioak, aldiz, egonkor mantendu ziren bigarren hilabetez jarraian.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
12/18	Japonia	Balantza komertziala doitu	¥265.0b
12/18	Italia	Balantza komertziala AEB	--
12/18	Eurogunea	Hileko KPIa	--
12/19	Alemania	IFO enpresen egoera	--
12/19	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	-% 3.1
12/19	Estatu Batuak	Kontu korrontearen balantza	-116.5b \$
12/20	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
12/20	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitza salmenta	5.53m
12/20	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza salmenta	% 0,9
12/21	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-12
12/21	Frantzia	Enpresen konfiantza	--
12/21	Estatu Batuak	Hiruhileko BPGd urtekotua	% 3,3
12/21	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
12/21	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	21.0
12/21	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
12/21	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
12/21	Estatu Batuak	Lider indizea	% 0,4
12/22	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
12/22	Frantzia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
12/22	Frantzia	Hiruhileko BPGd	--
12/22	Espainia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
12/22	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	--
12/22	Espainia	Balantza komertziala	--
12/22	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	% 1,5
12/22	Italia	MoM agindu industrialak	--
12/22	Italia	YoY WDA salmenta industrialak	--
12/22	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1,8
12/22	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	-% 5.0
12/22	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	97.2
12/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jardura Kansas Cityn	--

BURTSAK:

Itxiera mistoak burtsa-merkatuetan, positiboak Estatu Batuetan eta mistoak Europan eta Gorakorretan. Banku Zentralen bilerak ekarri zuen merkatuen arreta. Fed-ek 25 op igo zituen interes-tasak, aurreikusita zegoen moduan, eta etxeko ekonomiaren balorazio positiboa egin zuen. EBZk ez zuen aldaketarik egin bere dirupolitikari, eta ekonomiaren eta inflazioaren hazkunde aurreikuspenak igo zituen Eurogunerako. Ingalaterrako Bankuak ere bere horretan mantendu zituen bere dirupolitikak. Politikari begira, Alabamako hauteskundeak emaitzak ezagutu ziren. Bada, demokraten garaipenak are gehiago murriztu zuen alderdi errepublikanoak Senatuan zuen alde txikia, Trumpen programaren etorkizuna zailduz. Alemanian, bestetik, SPDk CDUrekin esplorazio-negoiazioak hasteko erabakia hartu zuen, koalizio gobernu bat sortze aldera. Brexitari dagokionez, negoziazioan egindako aurrerapenak hurrengo fasera igarotzeko bidea eman zuten. Amaitzeko, huts egin zuen eraso terrorista bat egiten saiatu ziren New Yorkeko autobus geltoki batean.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2017
MSCI WORLD (Local)	1.582,14	0,46	15,97
IBEX 35	10.150,40	-1,65	8,54
DJ EURO STOXX 50	3.560,53	-0,86	8,21
DJ STOXX 50	3.184,47	0,24	5,78
FTSE	7.490,57	1,31	4,87
S&P 500	2.675,81	0,92	19,52
Dow Jones	24.651,74	1,33	24,74
NASDAQ	6.936,58	1,41	28,86
NIKKEI 225	22.553,22	-1,13	17,99
MSCI GORAKORRAK (Lo	59.358,85	0,39	24,57
MEXBOL	48.081,55	1,07	5,34
BOVESPA	72.607,70	-0,17	20,56
SHANGHAI	3.420,53	-0,73	5,26
Errusia Rts Mosku	1.148,27	2,57	-0,35

ERRENTA FINKOIA:

Banku Zentralek merkatuaren arreta bereganatu zuten astean, Europako core zorra eta Ameriketako ez ziren gehiegi aldatu. Europan, 10 urterako bonu alemaniarren errentagarritasunak 1 op egin zuen atzera, % 0,30eraino. Aitzitik, mugaegun bereko bonu espainiarren errentagarritasunak 6 op egin zituen gora, % 1,46raino, eta arrisku-prima 115 puntutan kokatu zen. AEBetan, 10 urterako interes-tasa 2 op jaitzi zen, % 2,35eraino. Kredituak, bestalde, okerrera egin zuen eta diferentzialak handitu zituen.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,72	0,02	0,05
ESPAINIA 2 URTE	-0,35	0,02	-0,07
AEB 2 URTE	1,84	0,04	0,65
ALEMANIA 10 URTE	0,30	-0,01	0,09
ESPAINIA 10 URTE	1,46	0,06	0,08
AEB 10 URTE	2,35	-0,02	-0,09
ALEMANIA 30 URTE	1,10	-0,04	0,16
ESPAINIA 30 URTE	2,69	0,03	0,08
AEB 30 URTE	2,69	-0,08	-0,38
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	47,99	1,09	-24,05
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	237,84	6,06	-50,87

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroaren balioa apenas aldatu zen dolarraren aldean, eta truke-tasa 1,18 \$/€-an geratu zen. Yenak, babes-aktiboaren paperean, balioa irabazi zuen. Lehengaietan, petrolioaren prezioa % 0,20 igo zen, Ipar itsasoko oliobide baten itxieraren ondorioz. Urrearen balioa, bestetik, % 0,56 igo zen, 1.255,45 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2017
Dolarra / Euroa	1,18	0,08	11,55
Yena / Euroa	132,58	-0,66	7,75
Libera / Euroa	0,88	0,65	3,36

Lehengaiak 2017	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald.
Petrolio (Brent)	63,80	0,20	15,14
Urrea	1.255,45	0,56	8,95

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.